

ETXEAN BOTATZEN DUGUNA

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Elikagaiak botatzearen aurrean erantzukizunez jokatzea.
Kontsumitzaile arduratsuak izatea.
Janaria ez botatzeko jarraibideak.
Garapen Jasangarrirako 2., 12., 14. eta 15 helburuak.

Iraupena

Jarduera hau denbora puxka baten egiteko dago pentsatuta; gutxienez astebetean.

Beharko dugun materiala

Elikagaiak botatzeari buruzko datuak eta ikerketa egiteko txantiloak.
Ikasgelan ikusteko bideoak:
[Elikagaiak botatzeak uzten duen aztarna](#) eta [Elikagaiak botatzeak uzten duen aztarna 2](#), biak FAO erakundeak eginak.
[Hondakinak](#), WWF erakundeak babestua

Zikloak 2, 3

Aurretiazko oharra

Jarduera honen helburua ez da, noski, ikasleen etxean astebetean botatzen dituzten elikagaien neurketa zehatza egitea, estatistikoki oso konplexua baita hori, baizik eta elikagaiak botatzearen errealitatera hurbiltzea eta ikerketa egitean ikusi dutenaren aurrean hausnarketa egitera bultzatzea.

Garapena

Jarduera zertan datzan azaldu: haur bakoitzari ikerketa egiteko txantilo bat eman, eta edukia denen artean erreparatu, zer egin behar duten ondo ulertu dutela ziurtatzeko. Astebetez, apuntatu beharko dute zer elikagai bota dituzten etxean zakarrontzira, eta bota izanaren zergatia ere adierazi beharko dute.

Astebete geroago, denek egin dutenean ikerketa, lau pabost ikasleko taldeak osatu, talde bakoitzean alderdi hauek azter ditzaten:

- Zer elikagai mota bota dituzten gehien. Datu zehatzagoak izateko, batera ditzatela taldeko kide guztiek aurkitutakoak.
- Zergatik bota dituzten elikagai horiek zakarrontzira. Bakoitzak eman dezala bere iritzia eta ikus dezatela zergatiren bat nagusitzen den

Talde guztiek amaitu dutenean lana, bateratu egingo ditugu ondorioak eta datu nagusiak arbelean idatziko ditugu. Horrela, errazago ikusiko dituzte taldeek ateratako ondorioak.

Hausnarketa

Emaitzak bateratu eta horien gainean hausnartu:

- Zaila iruditu al zaizue ikerketa egitea? Zergatik?
- Zuen etxean bota dutenetik zer iruditu zaizue deigarriena?
- Taldean zuen datuak bateratu dituzue, etxe guztietan antzeko moduan jokatzeko dutela iruditu al zaizue?

Bukatzeko, ikusi proposaturiko bideoen bat edo bideo guztiak. Behar den guztietan gelditu eta sortzen diren zalantzak argitu, edukia denek ondo uler dezaten.

Jarduera honen emaitzekin, hausnarketa barne, *Kanpaina egiten 1 eta 2* jardueretara igaroko gara.

Ikerketa egiteko txantiloia

EGUNA	Bota den elikagaia	Zergatia *	Lekua	Gutxi gorabehera zenbat
Astelehena				
Asteartea				
Asteazkena				
Osteguna				
Ostirala				
Larunbata				
Igandea				

* Zergatia: **A** Iraungi egin da, **B** Hondatu egin da, **C** Sobera gelditu da (gehiegi egin delako) **D** Sobera gelditu da (jan ez delako)
E Besteren bat (zehaztu)